

## Teresa Perales igerilari paralinpiarrek motibaziorako gakoak azalduko dizkie MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleei.

2014/10/27

Teresa Perales igerilari paralinpiarra eta hizlari motibazionala, mugak gainditzeko moduari buruz mintzatuko da astelehenean, urriaren 27an, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK Irunen duen Enpresagintza fakultatean eskainiko duen hitzaldian.

Teresa Perales Zaragozan jaio zen 1975ean. 19 urte zituela gurpil-aulkia erabili beharrean gelditu zen neuropatia baten ondorioz. Egoera berrira egokitu ondoren, igeri egiten ikasi zuen eta lehiaketetan parte hartzen hasi zen. Askok nabarmendu zen igeriketan. Bere kirol-ibilbidean 22 domina irabazi ditu Joko Paralinpiarretan: urrezko 6, zilarrezko 6 eta brontzezko 10.

Lortutako kirol-merituengatik, Real Orden al Mérito Deportivo sariduna izan zen, Gran Cruz kategorian, eta finalista izan zen 2013ko Príncipe de Asturias sarietan, Kirolaren atalean.

Gainera, Perales aditua da coaching pertsonalean eta kiroletakoan, eta hitzaldiak eskaintzen ditu hainbat erakunde pribatu eta publikoetan. Lidergoa, motibazioa, talde-dinamikak eta mugak gainditzeko izango ditu hizpide MONDRAGON UNIBERTSITATEAn emango duen hitzaldian.

Bizitzaren gorabeheren aurrean beti jarrera positiboari eusteko gakoak azaltzen saiatuko da igerilaria ikasleen aurrean. Izan ere, kirolariak argitaratu berri du "La fuerza de un sueño" liburua, eta bertan, mugak gainditu ahal izateko emozioak nola entrenatu behar diren azaltzen du.

Teresa Peralesen hitzaldia MONDRAGON UNIBERTSITATEko Enpresagintza fakultateko ikasleek antolatu dute, Sport Mundi erakundearen lankidetzarekin. Sport Mundi irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eliteko kirolariak, amateurrek eta beste arlo batzuetako ordezkariak osatzen dutena; kirola sustatuz, jarduera fisikoen eta hitzaldien bidez elkartasunezko proiektuetarako dirua lortzea du xede. Ildo horretan, urtebete baino gehiago daramatzate Sport Mundik eta Teresa Peralesekin elkarrekin lanean, hainbat GKEk bultzatutako proiektu jakinetan eta baita hezkuntzako eta prestakuntzako lanetan ere.

Hitzaldirako sarrera librea izango da jarleku guztiak bete arte.

